

SANTO TOMAS



1

Santo Tomas ermitan gagoz
ermita txiki polita,
zelango poza artu ete dau
gaur gu emen ikusita!

2

Mutil gaztea zan gure Tomas
deia jaso ebanean,
dana itzita, pozarren jarri
zan Jesusen jarraipenean.

3

Jesus aundia zan bitartean
nok ez Berari jarraitu?
Baina beerantza asi zanean,
laster jakozan gogaitu.

4

“Goazen Beragaz”, dino Tomasek
bear bada gurutzera”,
ez eban uste berak egingo
ebanik gero atzera.

5

“Entzun lagunok, ordua dator
eta laster ilgo nabe,
baina irugarren egunerako
biztuko naz ostera be”

6

Apostoluak kontu au sarri
Jesusi eutsen entzuna,
baina oraindik au ulertzeko
ilun euken zentzuna.

7

Bereak ta bost jasan ondoren,
Jesus il zan gurutzean,
a zer porrota eroan eben
Jesusen eriotzean!

8

Artzaina jota, ardi gaixoak
ara ta ona igesi,
Jesusen ori ametsa zan ta
ez dau geiago merezi.

9

Batean batek, bestean bestek:
"Jesus ikusi dabela";
esanak esan, Tomasek ez dau
errez erantzi txapela.

11

Alako egun baten egozan
Apostoluak batera,
ustekabeen agertu jaken
erdian Jesus berbera.

13

"Ene Jaun eta ene Jaungoiko!"
Or Tomasen autorpena,
ikusi barik ezin sinistu...
ori da Tomasen pena!

15

Biztuta eukan gure Tomasek
martiritzako sugarra,
ze maitasun eutsan Jesusi
zinez agertu bearra!

17

Ikusi barik, sinistu dogu,
zorionekoak gara;
orain benetan bizi gaitazan
Santo Tomasen erara.

19

**Zaindu gagizuz, Santu maitea,
geuk be zainduko zaitugu,
alkar lagunduz konpontzen gara
beti ondo zu eta gu.**

10

"Dana kontua, dana ametsa,
orain, barriz, dala biztu?
Nik neure begiz ikusi barik,
ezin dot ori sinistu"

12

Arri eta zurtz eginda Tomas,
Jesus bertan ikusirik,
egia zala autortu eban
belaun gorritan jarririk:

14

Jesus zerura igon ondoren,
"Zabal zaiteze" esanda,
Espirituak bultzata Tomas
Indialdera joan da.

16

Agur Tomasen eskua eta
agur Jesusen saietsa!
Zuek sendotzen dozue gure
sinismenaren baietza.

18

Emen gaukazuz zure aurrean
Tomas, zeure egunean,
gorde gagizuz fede-bidean,
bakez ta osasunean.

A. Martzel